

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UPV/EHU

Sozietatearen izena

Euskal Herriko Unibertsitatea.

IFK

Q4818001B

Izaera

Unibertsitatea.

Kontabilitate-araubidea

Publikoa.

Aurrekontu-araubidea

Mugatzaila.

Sorrera

Euskal Herriko Unibertsitatea zuzenbide publikoko erakundea da, eta gizartearen zerbitzuan dihardu, bere eginkizunak autonomiaz garatuz, bere estatutuekin eta dagokion lege-esparruarekin bat etorritik; nortasun eta ahalmen juridikoa eta ondare propioa du bere eskumenen esparruan, eta ezinbesteko kalitatea- eta bikaintasun-konpromisoa hartu du irakaskuntzaren ikerketaren, azterketaren, kultura- eta unibertsitate-proiektzioaren, kudeaketa-prozesuen eta bere jardueren oinarri diren zerbitzuak eskaintzeko. Euskal gizartearen premiei erantzutera bideratuko du jarduera, baita haren historiaren eta eraldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturaletatik eratorritako premiei erantzutera ere, euskal gizartean kulturari eta zientzia unibertsalari buruzko jakintza zabalduz, euskal kulturari eta hizkuntzari lehentasuna emanez eta eguneroko jardunean iraunkortasunez arituz, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

EHUren aurrekaria Bilboko Unibertsitatea izan zen, eta 1968ko maiatzaren 22ko Ministroen Kontseiluaren erabakiz sortu zen, [abendua 18ko 3260/1969 Dekretuaren](#) bitartez; gero, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako probintziei ezarri zitzaie, [irailaren 23ko 2541/1977 Errege Dekretuaren](#) bitartez. 1980an hartu zuen egungo izendapena, [1980ko otsailaren 25eko Aginduaren](#) bidez.

Eduardo Chillidak sortutako ikur bat hartu zuen, eta horri Eman ta zabal zazu Iparragirreraren bertso ospetsua gaineratu zitzaion, euskal kulturaren bokazio unibertsalaren adierazgarri.

Gaur egun, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Campusek osatzen dute EHU, eta 2012ko abenduaren 31n, 31 irakaskuntza-zentro, 110 sail eta 18 unibertsitate-institutu (13 propio, 3 misto eta 2 esleitu) biltzen ditu guztira.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8543 Unibertsitate-hezkuntza.

Helburuak

EHUK honako xede hauek ditu:

- Jakintza sortzea, kritikatzeko eta transmititzea, eta ezagutza eta gizarte-garapeneraren aurrerapena bultzatzea, oinarriko ikerketa aplikatuaren bidez eta emaitzak gizarteari transferituz.
- Euskal gizartearen ondare intelektuala, humanistikoa, kulturala eta zientifikoa aberasten eta haren ekonomia eta gizarte-ongizatea garatzen parte hartzea.
- Kalitatezko goi-mailako hezkuntza eskaintzea, ikasleen prestakuntza integralari laguntzeko eta haien lanbide-prestakuntza ziurtatzeko, lan-munduan txertatzeko aukera izan dezaten.
- Euskararen garapena eta normalizazioa bultzatzea, bere jardun-eremutik abiatuta.
- Profesionalen etengabeko prestakuntza, eta maila handiagoko irakaskuntza eskatzen duten beste kolektibo sozial batzuen prestakuntza iraunkorra edo bizitza osoan zeharrekoa.
- Unibertsitatea hedatzea eta proiektatzea, batetik, gizarte- eta kultura-desberdintasunak murrizteko, eta, bestetik bizitza politikoan, kulturean eta sozialean hobeto parte hartzea ahalbidetzen duten baldintzak sortzeko.
- Nazioarteko trukea eta lankidetzak bultzatzea, Europako esparruari eta garapenerako lankidetzari arreta berezia eskainiz.
- Erakunde eta entitate publiko eta pribatuekin harremanak eta akordioak ezartzea, tituludunen prestakuntza hobetzeko, eta, ondorioz, tituludunak merkaturatzen errazteko.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Gobernu-organoak

EHUren gobernu-organo orokor nagusiak honako hauek dira: kide anitzeko organo gisa: [Gizarte Kontseilua](#), [Unibertsitateko Klaustroa](#) eta [Gobernu Kontseilua](#), eta lagun bakarreko organo gisa, berriz, [errektorea](#) (unibertsitatearen agintari goren), [erretoreordeak](#), [idazkari nagusia](#) eta [gerentea](#).

EHUko errektoreak 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aurrekontuetako kontabilitateko egoera-orriak eman ditu. Hona errektorearen izena:

Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna

2012ko aurrekontuak

www.kontabilitatea-aurrekontuak.ehu.es

Aurrekontuen likidazioa 2012

[2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aurrekontuetako kontabilitateko egoera-orriak, auditoria-txostenarekin batera.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Behin betiko Aurrekontua	604.033 milakako €
Betebeharrak aitortzea	475.023 milakako €
Eskubideak aitortzea	441.332 milakako €
Altxortegi-soberakina	106.306 milakako €
Langileak 12/12/31n	7.491 (*)

(*) Unibertsitateko langile propioez gain, eraginpeko finantziazioaren bidez kontratatutako langileak biltzen ditu, bereziki ikertzaileak.

Sozietatearen helbidea eta Webgunea

Sarriena auzoa - z./g. – 48940 Leioa (Bizkaia).

www.ehu.es